



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

V. legegintzaldia

Iruñean, 2001eko ekainaren 29an

73 ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

—Iruña-Logroño errepidea eraiki, ustiatu eta finantzatzeko Foru Lege proiektua. Osoko Bilkurak baztertutako osoko zuzenketak (3. or.).

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

—Nafarroako errepideen erabilerari eta ustiapenari buruzko Foru Lege proposamena. Osoko Bilkurak aintzat hartua (4. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da behar diren urratsak eman ditzan Audenasa-ko kapitalaren gehiengoa eskuratzeko. Osoko Bilkurak onetsia (5. or.).

—Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak protesta egiten du Nazioko Gobernuak A-68aren emakida 15 urtez luzatu duelako. Osoko Bilkurak onetsia (5. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da A-15 eta A-68 autopisten emakidaren akordioa berrikus dezan. Osoko Bilkurak bazter utzia (6. or.).

—Mozioa, foru parlamentari José Manuel Goikoetxea Askorbe jaunak aurkeztua. Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da Endarlatsa-Bera errepide-tarteko obrak egin ditzan. Erretiratutako mozioa (6. or.).

—Erabakia. Horren bidez, iritzi publikoari jakinarazten zaio Nafarroako Parlamentuak uste osoa duela herri-tarren parte-hartzea demokraziaren funtsezko zutabeetako bat dela. Osoko Bilkurak onetsia (7. or.).

—Bavaria, Katalunia, Eskozia, Ipar Renania-Westfalia, Salzburg, Walonia eta Flandes konstituzio-eskualde-
en adierazpen politikoari atxikitzea. Eledunen Batzarrak onetsia (7. or.).

G SAILA:

Txostenak, deialdiak, eta Parlamentuko informazioa:

—Nafarroako Foru Komunitateko errepide handien etorkizuna –bereziki A-15arena– aztertzeko Batzorde Berezia emandako txostena. Osoko Bilkurak berretsia (11. or.).

I SAILA:

Parlamentuko Jarduera:

—2001eko maiatzean egindako bilerak (14. or.).

—Biltzarreko Idazkaritza Orokorrean 2001eko maiatzean sartu diren dokumentuen zerrenda (20. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Iruña-Logroño errepidea eraiki, ustiatu eta finantzatzeko Foru Lege proiektua

OSOKO BILKURAK BAZTERTUTAKO OSOKO ZUZENKETAK

Nafarroako Parlamentuak, 2001eko ekainaren 21ean egindako Osoko Bilkuran, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua, Euskal Herri-tarrok, Socialistas del Parlamento de Navarra, foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak eta foru parlamentari José Manuel Goiko-etxea Askorbe jaunak Iruña-Logroño errepidea

eraiki, ustiatu eta finantzatzeko Foru Lege proiektuari aurkeztutako osoko zuzenketak baztertzea erabaki zuen.

Iruñean, 2001eko ekainaren 26an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Nafarroako errepideen erabilerari eta ustiapenari buruzko Foru Lege proposamena

OSOKO BILKURAK AINTZAT HARTUA

Biltzarrak, 2001eko ekainaren 21ean egindako Osoko Bilkuran, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztutako Nafarroako errepideen erabilerari eta ustiapenari buruzko Foru Lege proposamena aintzat hartzea erabaki zuen. Proposamen hori 2000ko maiatza-

ren 23ko 42. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko ekainaren 26an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da behar diren urratsak eman ditzan Audenasako kapitalaren gehiengoa eskuratzeko

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2001eko ekainaren 21ean eginiko bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da behar diren urratsak eman ditzan Audenasako kapitalaren gehiengoa eskuratzeko".

Biltzarreko Erregelamenduko 112. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2001eko ekainaren 26an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da behar diren urratsak eman ditzan Audenasako kapitalaren gehiengoa eskuratzeko

Nafarroako Gorteek Foru Gobernua premia-tzen dute gutxienez ere Audenasako kapitalaren gehiengoa eskuratzeko beharrezkoak diren urratsak eman ditzan.

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak protesta egiten du Nazioko Gobernuak A-68aren emakida 15 urtez luzatu duelako

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2001eko ekainaren 21ean eginiko bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak protesta egiten du Nazioko Gobernuak A-68aren emakida 15 urtez luzatu duelako".

Biltzarreko Erregelamenduko 112. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2001eko ekainaren 26an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak protesta egiten du Nazioko Gobernuak A-68aren emakida 15 urtez luzatu duelako

1.- Denik eta protestarik gogorrena egitea Espainiako Gobernuak eta Sustapen Ministerioak, bere kabuz, abusatuz eta modu arbitrario batez A-68 autobidea –Autopista Vasco-Aragonesa– ustiatzeko emakida hamabost urtez luzatu dutelako, erabiltzaileei kalte eginez argi eta garbi, eta enpresa hartzaileari, aldiz, irabazi itzelak eman.

2.- Sustapen Ministerioa premiatzea baliorik gabe utz dezan A-68 autobidea ustiatzeko emakida 15 urtez luzatzearen Ministroen Kontseiluak hartutako erabakia, Nafarroaren interes orokorren aurkakoa baita.

3.- Nafarroako Gobernua premiatzea erabaki horren aurkako errekurtsioa jar dezan auzitegie-

tan, baldin eta Nazioko Gobernuak bigarren puntuan ezarritakoa betetzen ez badu.

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da A-15 eta A-68 autopisten emakidaren akordioa berrikus dezan

OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA

Euskal Herritarrok Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da A-15 eta A-68 autopisten emakidaren akordioa berrikus dezan".

mozioa baztertu zuen. Mozio hori 2000ko ekainaren 12ko 49. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko ekainaren 26an

Nafarroako Parlamentuak, 2001ko ekainaren 21ean egindako Osoko Bilkuran, aipatutako

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Mozioa. Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da Endarlatsa-Bera errepide-tarteko obrak egin ditzan

ERRETIRATUTAKO MOZIOA

Foru parlamentari José Manuel Goikoetxea Askorbe jaunak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Mozioa. Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da Endarlatsa-Bera errepide-tarteko obrak egin ditzan".

Goikoetxea Askorbe jaunak aipatutako mozioa erretiratu zuela jakitun zegoela adierazi zuen. Mozio hori 2000ko ekainaren 27ko 55. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko ekainaren 26an

Osoko Bilkurak, 2001eko ekainaren 21ean egindako bileran, Foru parlamentari José Manuel

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Erabakia. Horren bidez, iritzi publikoari jakinarazten zaio Nafarroako Parlamentuak uste osoa duela herritarren parte-hartzea demokrazia- ren funtsezko zutabeetako bat dela

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2001eko ekainaren 14an eginiko bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, iritzi publikoari jakinarazten zaio Nafarroako Parlamentuak uste osoa duela herritarren parte-hartzea demokraziaren funtsezko zutabeetako bat dela".

Biltzarreko Erregelamenduko 112. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2001eko ekainaren 26an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Erabakia. Horren bidez, iritzi publikoari jakinarazten zaio Nafarroako Parlamentuak uste osoa duela herritarren parte-hartzea demokraziaren funtsezko zutabeetako bat dela

Iritzi publikoari agertzea herritarren parte-hartzea udal demokraziaren oinarritzko zutabeetako bat delako sinesmen osoa, eta, horregatik, erakunde eta organismo guztiei eskatzea hiritarrak euren hiriko bizi-kalitatea hobetzeko eragile aktiboak izatea ahalbidetzeko parte-hartze formak susta ditzaten.

Bavaria, Katalunia, Eskozia, Ipar Renania-Westfalia, Salzburg, Walonia eta Flandes konstituzio-eskualdeen adierazpen politikoari atxikitzea

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2001eko ekainaren 11n eginiko bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak honako adierazpen politiko honi atxikitzen dela erabaki zuen:

"Elkarren artean egindako adierazpen honen bitartez, Bavaria, Katalunia, Ipar Renania-Westfalia, Salzburg, Eskozia, Walonia eta Flandes (zeina ekimenaren koordinatzailea baita) konstituzio-eskualdeek Europar Batasunaren etorkizunari eta horren zeregin nagusiei buruzko eztabaidari ekarpena egin nahi diote. Halaber, ekimen horren bidez eskualde horietarako funtsezko garrantzia daukaten zenbait gai azpimarratu ahal izatea espero dute.

- Europar Batasunaren etorkizunari buruzko eztabaida interes berezikoa da konstituzio-eskualdeentzat. Lehenengo eta behin, bategite-prozesuak haien eskumenetan eragiten duelako. Bigarrenik, Europako legedia betetzeari dagokionez eskualdeek eginkizun garrantzitsua izan arren, euren ahotsak ez duelako behar adinako oihartzunik Europar politikak eta legedia taxutu eta zehaztean. Ondorioz, konstituzio-eskualdeek 2004ko

Gobernu arteko Konferentzian zuzeneko parte-hartzea izatea eskatzen dute.

- Konstituzio-eskualdeek premiatzen dute eztabaida Nizako Gobernu arteko Konferentzian proposaturiko gaietara mugatu ez dadin, eta biziki gomendatzen dute honako eztabaidagai hau gehitzea: "eskualdeen zeregina eta tokia Europako erabaki-hartze prozesuan eta berorren esparru instituzionalean".

- Europar Batasunaren funtsezko eginkizunei buruzko eztabaidarako, subsidiarotasun-printzipioa hartu behar da oinarri. Eztabaida horren bidez lortu behar da Europar Batasuna eraginkorra izatea, eta esku har dezala proposaturiko ekintzaren helburuak eskualdeek eta nazioek behar adina erdietsi ezin dituzten neurrian soilik.

- Europar Batasunaren eginkizunak sakonki berrikusi behar dira, eta, subsidiarotasun-printzipioari jarraituz, berriro definitu behar dira, Europar Batasunaren eskumenak haren kideen eta eskualdeen eskumenetatik bereizi ahal izateko moduko eskumen-esleipen argiagoga eginez. Puntu hone-

tan, konstituzio-eskualdeak Europar bategite-prozesua oztopatuko ez duen irtenbide malgu baten alde daude.

- Subsidiariorotasun printzipioari zor zaion errespetua ziurtatzeko xedez, eta, hala, konstituzio-eskualdeei dagozkien eskumen-esparruak guztiz errespetatzen direla bermatzeko, eskualde horiek Europar Batasunaren barnean daukaten eginkizun politikoa indartu egin beharko da.

Bavaria, Katalunia, Eskozia,
Ipar Renania-Westfalia, Salzburg, Walonia eta
Flandres konstituzio-eskualdeen
adierazpen politikoa

Europak aldaketa sakonak izan ditu azken hamarkada hauetan. Lehenik eta behin, Europak globalizazioaren erronka izugarriari egin behar dio aurre; hain zuzen ere, elkarmenpekotasuna gero eta handiagoa izatea du globalizazioak ezaugarri nagusi. Bigarrenik, Europar Batasunak hedatze-eginkizun historikoa bete behar du. Azkenik, ez da garrantzi txikiagokoa eskualdeetaratzeko joera gero eta handiagoa, kide diren estatuetan gaur egun antzematen dena; alegia, eskualde-mailari eta horrek prozesu politikoan Europako eta nazioko mailez gain duen zeresanari garrantzi handiagoa ematen zaie.

Gero eta nabariagoa da Europako Komunitatean eta, gero, Europar Batasunean aplikaturiko sistema politikoa gaur egungo egoera politiko-sozial aldagarriaren arabera egokitu behar dela. Erakunde-egitura tradizionala estatu nazionalaren eta Europar Batasunaren arteko elkarrekintzan oinarritzen da. Baina horrek ez du aintzat hartzen maila anitzeko osaturiko gobernu-sistema bateranzko gaur egungo joera, zeinaren ondorioz gobernu-egitura tradizionala pixkanaka amore ematen ari baita "geruza anitzetako gobernu-sistema" batzuen aurrean.

Azken urteotan, Europaren bategite-prozesuaren aldeko jarrerak behera egin du jendearengan zenbait estatu kidetan. Horrela, bada, Europar Batasunarentzat funtsezkoa da bide berriak jorratzea, jendeak Europar Batasunari beste bultzada bat ematearen aldeko jarrera izan dezala lortzeko.

Konstituzio-eskualdeek interes berezia agertu dute Europar Batasunaren etorkizunari buruzko eztabaidarekiko. Lehenik eta behin, bategite-prozesuak euren ekintza politikoaren jardueraren esparrua baldintzatzen duelako; izan ere, zenbait arlo politikotan, denboran zehar, Europar Batasunak gero eta gorago jo du bere eskumenak interpretatu eta erabiltzeko dagokionez. Bigarrenik, eskualde batzuek zeregin aipagarria daukatelako Euro-

pako legedia exekutatzeari dagokionez, nahiz eta Estatu kide gehienetan ez duten behar adinako ahotsik Europako legedia eta politikak prestatu eta zehazteaz denaz bezainbatean. Eta, hirugarrenik, gizarte demokratiko batean herritarrek eskubidea daukatelako hauteskundeetan botoa ematen dutenean eskumen zehatz bat —eta, beraz, erantzukizun zehatz bat—nori egozten ari zaizkion jakiteko.

1. EUROPAR BATASUNAREN ETA BERE JARDUERA NAGUSIEN ETORKIZUNARI BURUZKO EZTABAIDA

1. Eskualdeek Europar Batasunaren etorkizunari buruzko eztabaidan parte hartzea.

Guztiak ados daude Gobernu arteko 2004ko Konferentzia Nizakoa ez bezala prestatu beharri dagokionez. Oraingoan, aurre egin behar diegun erronkak askoz ere garrantzitsuagoak dira, eta horrek beharrezko egiten du prestaketa-fasea arreata are handiagoz aintzat hartzea.

Ildo horretatik, eta nahiago den eztabaida-modua zein den ere (konbentzioa edo egoki den bestelako egitura bat), konstituzio-eskualdeek Gobernu arteko 2004ko Konferentziaren prestaketan zuzeneko parte-hartzea erreibindikatzeko dute.

Konstituzio-eskualdeek aho batez onartzen dute Europar Batasunaren etorkizunari buruzko Nizako Adierazpenean jasotako lau gaiei arreata berezia eman behar zaiela. Halaber, eztabaida zabaltzera premiatzen dute, eta, bereziki, honako eztabaidagai hau eranstera: "Eskualdeen zeresana eta lekua Europako prozesu politikoan eta erakunde-esparruan".

2. Funtsezko eginkizunei eta eskumen-mugaketari buruzko eztabaidarako jarraibide gisa, subsidiariorotasun-printzipioa.

Konstituzio-eskualdeek eskatzen dute funtsezko eginkizunei eta eskumen-mugaketari buruzko eztabaidaren bitartez soluzioak aurki daitezela, Europar Batasunaren funtzionamenduan eta egituretan gardentasun eta erantzukizun handiagoa bermatzeko. Eskualdeek euren gain hartzen dituzte euren erantzukizunak, eta Europar Batasun demokratikoago eta efizienteagoa eraikitzeko ahaleginei laguntza emango dietela ziurtatzen dute.

Eraldatze-proposamen guztiek, abiapuntu gisa, gaur egun hitzarmenetan aipatzen diren honako printzipio hauek aintzat hartu beharko dituzte:

- eskumen-esleitzearen printzipioa; alegia, Europar Batasunak jardun beharko duela hitzarmenek ezarritako eskumenen mugapean;

- subsidiarotasun-printzipioa; horren arabera, Europar Batasunak esku hartu behar du, soilik, proposaturiko ekintzaren helburuak eskualdeen eta nazioen mailan behar adinako heinean lortu ezin diren neurrian;

- proportzionaltasun-printzipioa; hau da, Europar Batasunaren ekintza mugatu beharko da hitzarmenaren helburuak betetzeko behar den neurrira;

- Estatu kideen identitate nazionala errespetatu beharra; horrek barnean hartzen ditu eskualdeen identitatea eta aniztasun kulturala.

Printzipio horiek guztiak kontuan hartu beharko dira Europar Batasunean eskumenak hobeto eta argiago esleitzeko soluzio ez anbiguoak definitzeko prozesuan. Europar Batasunaren eginkizunak arretaz aztertu beharko dira, eta, subsidiarotasun-printzipioari jarraituz, eskumen-esleipen argiagoa eginez birdefinitu beharko dira, Europar Batasunaren eskumenak estatu kideek eta euren eskualdeek dituztenetatik hobeto bereizi ahal izateko. Puntu horri dagokionez, konstituzio-eskualdeak Europako bategite-prozesua oztopatuko ez duen sistema malgu baten alde daude.

Europar Batasunak aurki izanen duen handitze-prozesuak eta etorkizunean izanen duen garapenak beharrezko egiten dute erkidegoaren erakunde-egitura guztia argiagoa izan dadila, eta, bereziki, hitzarmenak sinplifika eta berrikus daitezela. Hori horrela, gobernu-maila bakoitzak jarduera-esparru gardenagoa izan dezala eskatzen dute konstituzio-eskualdeek; hain zuzen ere, herritarrek gobernu-erantzukizunaren mailak argiago bereizi ahal izateko moduko jarduera-esparru bat.

Bereziki aipatu behar da Europar Batasuneko eskumenak oinarritzko eginkizun batzuen inguruan bildu behar direla; izan ere, Europar Batasunak, hedatu ondoren, ez du ahalmenik izanen gaur egungo jarduera-eremuetaraino iristeko. Europar Batasunak jarduera gehiegitan esku hartzeak arriskuan jartzen ditu erabakiak hartzeko bere prozesuaren eraginkortasuna, erantzukizuna, gardentasuna eta hurbiltasuna.

Ondorioz, konstituzio-eskualdeek hauxe eskatzen dute: eskumenak hobeto mugatzeko xedez, Europar Batasunari eta, bestalde, estatu kide nahiz haien eskualdeei eginiko erantzukizun politikoan banaketa berrikus dadila. Berrikuspen hori beharrezkoa da, bereziki, giltzarri diren honako

eremu politiko hauetan: "barne merkatuaren funtzionamendua", "eskualde-politika eta kohesio ekonomiko eta soziala", "nekazaritza-politika komuna", "ingurumen-politika", "ikerketa, teknologia eta informazioaren gizartea" eta "hezkuntza, hedabideak eta kultura". Hori horrela, hitzarmeneko 94 eta 95. artikuluen norainokoa murriztea garrantzitsua da, halako moldez non horietan oinarrituriko neurriek barne merkatuaren ezarpena eta funtzionamendua izanen baitute lehentasuneko eta zuzeneko helburu.

Konstituzio-eskualdeek eskatzen dute gobernu-maila guztiek –Europakoak, nazionalak eta eskualdekoak– zuzenean elkarturik ekin diezaizkela zerrendaturiko gaiei dagozkien lanei, hiru helburu hauek lortzeko: esparru politiko bakoitzean eztabaida definitzea, eztabaida argitzea eta zilegitasuna Gobernu arteko Konferentziaren eduki izanen diren puntuetan oinarriturik izanen duen eztabaida bat, argudioz behar bezala hornitua, erraztea.

Azkenik, Europar Batasunaren funtsezko eginkizunei buruzko eztabaidan sartu beharrekoak diren politika taxutzeko tresnei (alegia, tresna juridikoei, Europar Batasuneko programei, koordinazio-metodo irekiari eta antzekoei) buruzko irizpen osoa ere egin behar da. Tresna horiek guztiek Europar Batasuneko eskumen-sistema errespetatu beharko dute. Halaber, erabakitzen den modua edozein dela ere, maila guztiek esku-hartzea izanen dutela bermatu beharko da.

Europar Batasunaren eta estatu kideen artean eskumenak mugatzeko sistema hobe baten alde egiteko, zenbait aukera aztertu beharko dira.

Aukera bat izan daiteke legegintzari dagozkion eskumen-kategoriak definitzea; adibidez:

- Europar Batasunaren eskumen eskusiboak.

- Europar Batasunaren eskumena, esparru-izaerakoa.

- Europar Batasunaren eskumen osagarria.

Eskumen-arauen eta subsidiarotasun- nahiz proportzionaltasun-printzipioen aplikazioa bermatzeko, berariazko eginkizun horiek izanen lituzkeen erakunde independente bat eratu beharko litzateke.

II. ESKUALDEEN ZERESANA EUROPAR BATASUNEKO EGITURETAN

Europar Batasunak eskualdeetako agintarientzat daukan garrantziak izugarritzko gorakada izan du azken urteotan. Europako araudi askok zuzeneko edo zeharkako eragina izaten dute politikataxuketaren eskualde-mailetan. Bategite-proze-

suak aurrera egin ahala, eskualde-agintariek Europako politikan zeresana izan beharra handiagoa da.

Europar Batasunaren mailan eskualdeek izan beharreko zeresana gauzatu ahal izateko moduko erakunde-esparru egoki batek islatu behar ditu politikak taxutzeko prozedura guztiak (prestaketa, definizioa eta praktikan jartzea).

Konstituzio-eskualdeek ez dute egokitzen jotzen gaur egungo erakunde-esparrua; bertan, Eskualdeen Batzordea da toki- eta eskualde-agintarien interesak ordezkatzeko dituen organoa. Konstituzio-eskualdeek zalantzagarriz jotzen dute Eskualdeen Batzordeak, gaur egun antolatutako dagoen moduan eta duen erakunde-estatutuarekin, eskualdeen beharrak eta igurikapenak asetu ahal izatea.

Halaber, Europar Batasunaren etorkizunari buruzko eztabaida zabala gune bat izan beharko litzateke Europar Batasuneko politikak garatu, bete, kontrolatu eta ebaluatzeko lanetan konstituzio-eskualdeek legegintzari eta arlo judizialari dagokienez parte hartu ahal izateko bide instituzionalak taxutzeko.

Eztabaida horretan, besteak beste, honako gai hauek lantzea nahi lukete konstituzio-eskualdeek:

– Eskualdeen Batzordea

Erabakiak hartzeko prozesuan Eskualdeen Batzordeak izan beharreko eginkizuna indartu liteke: Eskualdeen Batzordeak izan beharko litzuzke Europar Batasuneko eskubide osoko erakunde baten estatutua, aholku-emate soila gainditzen duten eskumen politikoak eta Europar Batasune-

ko Justizia Auzitegian prozedurak hasteko eskubidea;

– Europako Parlamentua

Nazio eta eskualdeetako parlamentuek partehartze handiagoa izan lezakete Europako prozesu politikoan, eta haiek Europako Parlamentuarekin izan beharreko elkarreagin hobetu liteke.

– Europako Justizia Auzitegia

Konstituzio-eskualdeek eskubidea izan behar dute Justizia Auzitegian errekurtoa zuzenean aurkezteko haien eskubideak urratzen direnean, Estatu kideek egin dezaketen bezalaxe.

Legegintzari dagokionez, helburu nagusia da konstituzio-eskualdeek Ministro Kontseiluaren baitan egin beharreko ekarpena sustatzea. Eskaera hori, lehenik eta behin, maila politiko nazionalari egin behar zaio. Estatu kideek behartuta egon beharko lukete bertako konstituzio-eskualdeek euren eskumen-esparrukoak diren gaietan daukaten iritzia aintzat hartzea. Europar Batasunak politiken taxutze-prozesuan konstituzio-eskualdeek parte har dezaten erraztu behar du, Europar Komunitatearen Hitzarmeneko 203. artikulua bidez egin zen bezalaxe.

Ekimen hau izan duten zazpi konstituzio-eskualdeek euren helburuekiko abegitsu diren beste konstituzio-eskualde batzuei adierazpen hau aurkezteko asmoa daukate. Eskualdeetako agintarien arteko lankidetzak giltzarri izanen da Europako agenda politikoan egiazko eragina izateko".

Iruñean, 2001eko ekainaren 11n

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Nafarroako Foru Komunitateko errepide handien etorkizuna –bereziki A-15arena– aztertzeko Batzorde Bereziak emandako txostena

OSOKO BILKURAK BERRETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2001eko ekainaren 21ean egindako bileran Nafarroako Foru Komunitateko errepide handien etorkizuna –bereziki A-15arena– aztertzeko Batzorde Bereziak emandako txostena berretsi zuen.

Iruñean, 2001eko ekainaren 26an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Nafarroako Foru Komunitateko errepide handien etorkizuna –bereziki A-15arena– aztertzeko Batzorde Bereziak emandako txostena

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldearen ekimenez 1999ko azaroaren 2an hartu zuen erabakiaren bitartez, Nafarroako Foru Komunitateko errepide handien etorkizuna –bereziki A-15arena– aztertzeko Batzorde Berezia eratu zen, errepide handiek Nafarroan izanen duten etorkizunari buruzko ondorio edo gomendio batzuk zehazteko xedez.

Batzordea 1999ko abenduaren 30ean eratu zen, eta bilkurak egin ditu 1999, 2000 eta 2001ean. Horietan, agintari, aditu eta agertu beharrekotzat jo ziren pertsona guztiek parte hartu dute, batzorde bereziaren aztergaiei buruzko euren proposamen eta ikuspegiak azaltzeko. Halaber, eskatu ziren txosten eta dokumentuak ekarri ziren.

2001eko maiatzaren 31n Parlamentuko taldeek aurkezturiko proposamenak eztabaidatu eta, kasu batzuetan, onetsi ziren; horrela, batzordekideek erabakitako lan-egitaraua bete zen. Onetsitako proposamen horiek, "Batzorde Bereziaren Ondorio" gisa, osatzen dute Mahaiari eta Eleduen Batzarrari aztertzeko bidaltzen zaien txostena. Hori guztia, Batzorde bereziaren eraketa,

antolaketa eta funtzionamendua zehazten dituzten arauetako zazpigarrenak ezarritakoari jarraituz.

ONDORIOAK

1.- Errepide Plana

Nafarroako Gobernua premiatzen da 2001ean Nafarroako Parlamentuari 2002-2005-2009 urteetarako Nafarroako Errepideei buruzko Foru Plan berri bat aurkez diezaion, Nafarroako Parlamentuak onetsi dezan. Plan horrek, besteak beste, Nafarroako Foru Komunitateko errepide handien etorkizuna aztertzeko Batzorde Bereziak onetsitako erabaki proposamen guztiak jaso beharko ditu, eta arreta bereziz aztertu beharko ditu Nafarroako eskualde- eta toki-sarea, elementu garrantzitsua izan dadin Nafarroako lurralde-egituraketan eta bertako oreka ekonomiko eta sozialean.

2.- Iruña-Lizarra-Logroño autobia

Nafarroako Gobernua premiatzen da Iruña-Lizarra-Logroño autobia obrak berehala hasi ahal izateko administrazio-izapideei ekin diezaien 2001ean, autobia hori gehienez ere 7 urteko epean errealitate bihurtzeko, aurrekontuz kanpoko finantzaketaren bidez. Horrela finantzatzeak errepide handietan egin beharreko beste ekintza batzuk aurrekontuen bidez finantzatu ahal izateko zenbait baliabide ekonomiko gordetzea ahalbidetu beharko du.

3.- A-15 autobia.

1.- Nafarroako Gobernua premiatzen da bide-segurtasunaren esparruan N-121aren ezaugarriak hobetzeko xedez zenbait lan egin ditzan; zehazki, honako hauek:

- "Orizko bihurguneak" deritzenak eraldatzea.
- Arrizabalagako zeharbidea eraldatzea, Tiebas-Muru Artederretako Udalarekin lankidetzan.
- Untzueko bidegurutzea eraldatzea.

– Barasoain-Garinoango bihurguneak eraldatzea.

– A-15aren Tafallako lotuneak, iparraldekoa eta hegoaldekoa, eraldatzea.

– Los Abetos-eko bidegurutzeta eraldatzea.

2.- Halaber, Nafarroako Gobernuak premiatzen da lotune gehiago eraiki ditzan A-15ean, inguruetako herrietara errazago iritsi ahal izateko, baina bidesarien araubidea aldatu gabe.

4.- N-232

Nafarroako Gobernuak premiatzen da N-232a osoki bikoizteko beharrezkoak diren izapideei ekin diezaien.

2001 eta 2002an proiektua egin eta onetsi eta obrak lizitatzeke beharrezkoak diren izapideak egingen dira. Obrak 2003an hasi eta 2007an bukatuko dira.

5.- A-68-Tuterako ekialdeko saihezbidea

1.- Tuterako ekialdeko saihezbidea

Nafarroako Gobernuak premiatzen da Tuterako ekialdeko saihezbidea egiteko administrazio-izapideei berehalakoan ekin diezaien, obrak 2003an hasi eta 2005ean bukatu ahal izateko.

2.- A-68 autobideko lotune berriak

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du Vasco-Aragonesa, S.A. (AVASA) kontzesio-hartzailearekin A-68 autobidearen Nafarroako zatian –zehazki, Lodosan– lotune berri bat eraikitzeke akordio batera iristeko behar diren urratsak eman ditzan Sustapen Ministerioan.

6.- Pirinio azpiko autobia.

Nafarroako Gobernuak premiatzen da N-240ko Noain-Idotzin zatiko obrak 2003an hasi ahal izateke behar diren administrazio-izapideei ekin diezaien 2001ean. Aipaturiko errepide-zatia Iruña-Huesca Pirinio azpiko autobia da, gutxi gorabehera 9.500 milioiko kostua du, eta 2007an bukatuko da.

7.- Medinaceli-Tutera errepide handia.

Nafarroako Gobernuak premiatzen da Sustapen Ministerioan behar diren ekintzak egin ditzan Medinaceli-Tutera errepide handia berehala egiteke konpromisoa lortzeko.

8.- N-121 A. Iruña-Behobia.

Nafarroako Foru Komunitatearen eta Europaren arteko lotura hobetzeari dagokion lehentasun

gisa, Iruña-Behobia N-121 A errepide guztia hobetzea, eta Nafarroako Gobernuak presaz premiatzen da Bera-Endarlatsa zatia egiteke eta Gipuzkoako Foru Aldundiarekin Endarlatsa-Behobia zatirako akordio batera iristeko.

9.- N-121 B.

N-121 B errepidean, Mugairetik Frantziako mugaraino, behar diren saihezbideak egin eta Otsondoko mendatea hobetzea.

10.- Ezkabako tunela.

Nafarroako Gobernuak premiatzen da Ezkabako Tunelari dagokionez behar diren administrazio-izapideei ekin diezaien 2001ean, horiek 2002an hasi eta 2005ean bukatu egon ahal izateko. Horren kostua 4.000 milioi ingurukoa da.

11.- Pirinioaz gaindiko autobia.

Nafarroako Gobernuak premiatzen da Nafarroa-Frantzia mugaz gaindiko errepide handi bat eraikitzeke behar diren aurretiatzko azterlan teknikoak egiten jarrai dadin.

Nafarroako Gobernuak premiatzen da Frantziako agintariekin hitzarmen bat egin dezan aipaturiko Nafarroa-Frantzia errepide handiaren aurreproiektua eta errepide horren ingurumen-eraginari buruzko azterlana bi aldeek elkarrekin prestatzeko.

12.- N-135.

Nafarroako Gobernuak premiatzen da toki-sarean hobekuntzak egin ditzan, N-135 igarotzen den herrietan (Erroibar) eta N-140an, Auritz eta Izaba artean.

13.- N-132.

Nafarroako Gobernuak premiatzen da 2002tik 2004ra bitartean Lergako gainetik Eslabarainoko errepide-zatia eraiki dezan, eta jarraian ardatza Zareko saihezbidean buka dezan.

14.- Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak Ondorioen Txostena berresteko proposamena eta behar diren ekimenak izapidatzea.

Batzorde Bereziak Eledunen Batzarra premiatzen du Batzordearen txostena, zeinak gehien-gezo onetsiriko ondorioak biltzen baititu, Parlamentuko Osoko Bilkuran aurkez dadin, horrek berresteko.

Halaber, onetsiriko erabaki proposamenen edukia eraginkorra izan dadin behar diren parlamentu- eta legegintza-ekimenak izapidatuko dira.

I saila:
PARLAMENTUKO JARDUERA

2001eko maiatzean egindako bilerak

MAHAIA ETA ELEDUNEN BATZARRA

2, 7, 14, 21, 24 eta 28an.

OSOKO BILKURA

17an:

– Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileentzako neurriei buruzko Foru Lege proiektuaren gaineko irizpena, Lehendakaritza, Funtzio Publiko eta Barne Batzordeak onetsia, eztabaidatu eta bozkatzea.

– Abereen osasunari buruzko Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamenaren gaineko irizpena, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Mendi Batzordeak onetsia, eztabaidatu eta bozkatzea.

– Osoko zuzenketak, Nafarroako Administrazio Publikoen montepioetako funtzionarioen eskubide pasiboei buruzko Foru Lege proiektuari aurkeztuak, eztabaidatu eta bozkatzea. Nafarroako Demokraten Elkargunea, Euskal Herritarrok, Socialistas del Parlamento de Navarra eta Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko taldeek eta Goikoetxea Askorbe jaunak aurkeztu dituzte.

– Nafarroako Kontseiluari buruzko martxoaren 16ko 8/1999 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena atzera bidaltzeko proposamena, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak aurkeztua. Proposamena iragan otsailaren 8an hartu zuen aintzat Osoko Bilkurak.

– Castejónen ikasleen hezkuntza-zerbitzua mantentzeko buruz Nafarroako Parlamentuak 2000ko ekainaren 30ean hartutako Erabakia betearazteko Foru Lege proposamena.

– Jabeldura, Urbasa-Andiako Natur Parkean egiten ari diren prospekzio lanei buruzkoa. Euskal Herritarrok Parlamentuko Taldeak aurkeztu du.

– Mozioa, Rubio Salvatierra andreak aurkeztua, eztabaidatu eta bozkatzea. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da arrantza

barrutien kudeaketa dela-eta zenbait erabaki har ditzan.

– Mozioa, José M^a Aierdi Fernández de Barrena jaunak aurkeztua. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da kanpin instalazioetako arriskuak aztertzeari berriro ere ekin diezaion.

– Mozioa, Euskal Herritarrok Parlamentuko Taldeak aurkeztua. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da sexu- eta osasun-hezkuntzako teknikari lanpostuetarako prestakuntza berezia eska dezan.

– Mozioa, Euskal Herritarrok Parlamentuko Taldeak aurkeztua, eztabaidatu eta bozkatzea. Horren bidez, Nafarroako Gobernuari eskatzen zaio neurriak har ditzan Nafarroa Garaia osoan ikasketa guztiak euskaraz egin ahal izatea bermatzeko.

24an:

– Nafarroan etxebizitzarako laguntza neurriak arautzen dituen irailaren 28ko 287/1998 Foru Dekretuko 20.c), 23.c) eta 148. artikulua aldatzeko Foru Lege proposamena; Foru dekretu hori 621/1999 Foru Dekretuaren bidez aldatu zen. Lurraldearen Antolamendu, Etxebizitza eta Ingu-rumen Batzordeak onetsitako irizpena eztabaidatu eta bozkatzea.

– Aintzat hartzea, hala erabakitzen bada, Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko uztailaren 4ko 10/1994 Foru Legeko 273. artikulua aldatzeko buruzko Foru Lege proposamena. Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak aurkeztu du.

– Aintzat hartzea, hala erabakitzen bada, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proposamena. Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak aurkeztu du.

– Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztutako mozioa eztabaidatu eta bozkatzea. Horren bidez, Nafarroako

Gobernua premiatzen da espetxeratutakoen osasun laguntzari buruzko neurriak har ditzan.

– Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztutako mozioa eztabaidatu eta bozkatzea. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da finantza-egonkortasuna, garapen ekonomikoa eta berdintasuna bultzatzen ekonomia globalizatuan.

– Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztutako mozioa eztabaidatu eta bozkatzea. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da laguntza sozio-sanitarioari buruzko plana igor dezan.

– Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak aurkeztutako mozioa eztabaidatu eta bozkatzea. Horren bidez, Gorte Nagusiak eta Estatuko Gobernua premiatzen dira hauteskondeen gaineko legeria aldatzera, gizonak eta emakumeak hautagai eta hautetsi izateko aukera berdinak izan ditzaten.

– Euskal Herritarrok Parlamentuko Taldeak aurkeztutako mozioa eztabaidatu eta bozkatzea. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Itoizko urtegia betetzeko aurreikusitako lana geldiaraz dezan.

– 9/2000 Foru Dekretua, urtarrilaren 10ekoa, Zerga bereiziei buruzko abenduaren 30eko 20/1992 Foru Legea aldatzen duena, eztabaidatu eta bozkatzea.

BEHI-AZIENDAREN ENTZEFALOPATIA ESPONGIFORMEAREN JARRAIPENA ETA KONTROLA EGITEKO BATZORDE BEREZIA

2an:

– Lan bilera, Irache eta Santa María la Real kontsumitzaile elkarteekin.

9an:

– Lan bisitak.

10ean:

– Lan bilera, “La Protectora” hiltegiko gerentearekin, “Pamplona, SA” hiltegiko gerentearekin eta Harakinen Elkarteko ordezkari batekin.

16an:

– Lan bilera, “Pensos Caceco” enpresako Zuzendari Nagusiarekin.

– Lan bilera, “Pensos Unzué” enpresako Zuzendari Nagusiarekin.

23an:

– Lan bilera.

30ean:

– Nekataritza, Abeltzaintza eta Elikadura Kontseilariaren agerraldia.

LURRALDAREN ANTOLAMENDU, ETXEBIZITZA ETA INGURUGIRO BATZORDEA

2an:

– Lan bilera ondorengo elkarten ordezkari banarekin: Lizarrako Kirol Ehiztari eta Arrantzaleen Elkarteak, Iruñeko Ehiztari eta Arrantzaleen Elkarteak eta Arga Ibaiko Arrantzale Elkarteak.

– Lan bilera ondorengo elkarten ordezkari banarekin: Nafarroako Euli-arrantzako Elkarteak (ANAPAM) eta salmonidoak hobetzeko azterlan bat egiteko elkarteak (AEMS).

4an:

– Lurraldearen Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro kontseilariaren agerraldia, Eledunen Batzarrak eskatuta, arrantza barrutien kudeaketaren berri emateko.

10 eta 14an:

– Nafarroan etxebizitzarako laguntza neurriak arautzen dituen irailaren 28ko 287/1998 Foru Dekretuko 20.c), 23.c) eta 148. artikulua aldatzeko Foru Lege proposamena eta hari aurkeztutako zuzenketak eztabaidatu eta bozkatzea. Foru dekretu hori 621/1999 Foru Dekretuaren bidez aldatu zen.

– Mozioa, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak aurkeztua, eztabaidatu eta bozkatzea. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Ebroko Ur Konfederazioak sustatutako “Pirinioko Itsasoa Garatzeko Estrategian” esku har dezan.

– Mozioa, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak aurkeztua, eztabaidatu eta bozkatzea. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Basa fauna eta haren habitatak babestu eta kudeatzeari buruzko 2/1993 Foru legea alda dezan.

HEZKUNTZA ETA KULTURA BATZORDEA

2an:

– Lan bilera. Bertan Nafarroako Eskola Kontseiluko lehendakariak “Nafarroako hezkuntza sistemari buruzko txostena, 1999-2000 ikasturtea” delakoaren berri emango du.

– Lan bilera. Bertan Tuterako Udaleko ordezkari bat “Tuteran unibertsitate ikasketak jartzeko

aukerari buruzko txostena" izenekoaren gainean arituko da.

4an:

– Lan bilera, San Francisco ikastetxeko guraso elkartearekin, ikastetxe publiko hori Teresatarren ikastetxea izandakora eramateari buruz aritzeko.

